

Eta Jainkoaz, zer berri?

La pregunta sobre Dios y su relación con el hombre ha ocupado una buena parte de la Filosofía, y más aún de las Teologías de las Religiones mayores. Los Libros sagrados de todas ellas hablan de El, y los tratados teológicos que los han interpretado han dado prioridad a la reflexión sobre su naturaleza y significado. El tema de Dios ha sido recurrente entre los pensadores, bien para afirmarlo y tratar de desvelarlo en su misterio, bien para cuestionarlo o negarlo. Veamos algo sobre ello.

Jainkoaz eta Haren izaera eta nolakotasunaz Filosofiak eta Teologia handiek etengabe hausnartu dute, eta txikiagoek ere beren galderak egin eta erantzunak bilatu dituzte, gizaki elbarriaren noraeza argitu nahirik. Betikoa, alegia: nondik gatoz, nora goaz?

Jainkoa, nolako Jainkoa?

Jainkoarena argituz joateko, hiru bide nagusi izan ditu gizakiak: lehen pausoan, mitoek eta goi-agerkondeek eskueran jartzen diotena (Biblia, Korana); bigarren, arrazoimenak eta barne-sentierak erakusten diotenari jarraituz egin daitekeen bidea, eta, hirugarren, kultura askotan egin den aldi bereko hurbilketa bikoitza: Liburu sakratuek diotena aintzakotzat hartu eta berorien arrastoean fede eta arrazoizko gogoetari leku eman diona.

Grezian bere lehen garaietatik mitologia esanahitsua izan zuten, baina mitoak beren literaltasunean ez ziren batere argiak, muina beren sakonean bilatu behar zitzairen. Horrela, bada, Filosofia grekoa itaun eta zalantzen artean jaiotako pentsamendua izan zen, mitoekiko pentsamendu kritikoa izateraino. Eta batzuetan horrek bere arriskuak izan zituen; ez dago Sokratesen biografia gogoratu besterik, heriotzera kondenatua izan baitzen, gaizki ulertze politiko-erlijioso baten ondorioz.

Bibliako Jainkoaz asko idatzi da, judaismoan bezala kristautasunean, Jainkoa izan baitzen pentsamendu erlijioso horien erdigune nagusia, beti galdetu eta erantzunez bilatu izan dena. Kristautasunak Testamentu Zaharreko altxorra jaso zuen, eta

jainko berri hartan kultura heleniarraren argitan pentsatu behar izan zuen Kristautasunak Jainkoarekikoa ere.

Jainkoa zer/nor den eta nolakoa den aditzera emateko (izenak eta izana elkarrekin bat egiten zutela uste baitzen), kontuz aukeratutako izena eman zitzaion Jainkoari (adibidez, Biblian Jainkoak berak eman zuen ezagutzera bere izena: *Yaveh* = "Ni, naizena naiz"), alegia izanaren iturburua zela aditzera emanez. Horregatik, *Yaveh* izena ezin zen nolanahi ahoskatu: "Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, ez baitu hori egingo duenik zigorrik gabe utziko" (Ir 20, 7).

Baina, izen isilduak zuen izanezko balioagatik, nahitaezkoa zen sinestunak Amtzinatean Jainkoaz begiramenez eta askatasunez hitz egiteko izenorde edo izenlagun adierazgarriak erabiltzea. Babiloniako Marduk jainkoaz zerbait esateko 50ren bat izenorde zeuden, eta gaur egun ere musulmanen artean ezagunak eta ohikoak dira Allah-ren 99 "izen ederrak": *Erukitsua, Bake-iturria, Gorena, Fede-emalea, Barkatzailea, Orojakituna*, etab. Buruz ikasten dira, eta errosario-modura otoitzean esaten.

Izenorde horiek ez dute esanahi literarioa bakarrik, Jainkoaren izaera erakusten dutenez, adierazpen teologikoak dira, Jainkoa bera ezagutzera emateko Teologian erabiliko direnak. Eta honek berdin balio du kristautasunerako ere. Gogoratu besterik ez dago gaztelaniaz Frai Luis Leongoak idatzi zuen liburu sonatua, *Kristoren izenak* zeritzana (1585) eta



bertain Jesus Nazaretekoari ematen zaizkion izenak: *Bidea, Etorkizunaren Aita, Artzaina, Bildotsa, Mendia, Bakearen Printzea, Jainkoaren Besoa*, etab.

Jainkoa Misterioa da, ibiliaz bilatzen den sinetsitako Norbait, salbamen historian aurki daitekeena eta ibilera pertsonalean bidea eginez bilatu nahi dena. Eta izenorde edo izenlagun horiek bilaketaren Eskrituretako eta bizitza erlijiosoko erakusle izan dira, Jainkoa "ikusten" lagundu baitute.

Kristautasunetik urrun, bestelako mundu batean, zerbait paretua topa daiteke: hinduismoak aipatu izan dituen Vishnu eta bere *avatara* direlakoek, edo budismoak dituen *bodhisattva* deituek jainkozko izaera izan dezakete, eta jainkotasunaren ezagutzarako bidexkak dira hinduista eta budistentzat.

Jainkoa irakasten?

Inguruan ditugun Erlijio ongi antolatuek –kristauak, juduak, islam-ak– beti hartu dute sinestunei Jainkoaz hitz egin eta Beraren aurpegiak erakusteko zeregina, Biblia edo Korana erabiliz, liturgiaren bidez, teologia zabalduz, sermoietan, dotrina emanez.

Eliz Irakaslego ofizialak sarri eta luze hitz egin izan du Jainkoaz. Jainko Bakar bezala aurkezten da krtistauen Jainkoa, izan Hirutasun pertsonalean dena, mundu eta gizadiaren sortzaile, santutzaila, salbatzaile eta gidari gisara. Jainko hori Gizadiaz arduratuta ageri da.

Jainkoaz eta Hirutasunaz azalpenak emateko liburu bereziak idatzi dira Elizan (*De Deo Uno et Trino*), hau da, Jainkoa "ikasteko" liburuak dira. Seminarioetako apaizgaiek liburu horietan ikasi ohi zituzten Jainkoarekikoak, garai batean modu oso zurrunean eta berrikitan malgutasun libreagoz. Gogoratzen dut Aita Villasantek, bere euskara argian, bi liburu oso idatzi zizkigula horretaz: *Jainkoa* eta *Jesukristo* (1962, 1969), eta urte haietatik hona teologoez egin dute lan onik.

Euskaraz sarrienik argitara izan diren liburuak

Kristau-bide edo *Dotrinak* izan dira. Mogel-ek euskaraz emandakoa 43 bider kaleratu zen bizkaieraz. Dotrina edo atixima guztiek zituzten Jainkoaz betiko galdera-erantzunak. Garai bateko katixima horietan beti dago Jainkoa aukeztuta, eta beraren dohainak aditzera emanda. Hortik hasi izan da kristautentzat sinesgaien gainerako guztia.

Era berean, Eliza katolikoaren dotrina erromatar handiek (Pio V, 1566; Pio X, 1912, Joan Pablo II: 1997) edo, adibidez, Nimegako *Kristau Bidea* deituak (euskaraz, Arantzazu, 1975) ez diote Jainkoaren sinesgaiari era berean heltzen, baina gaia hortxe dago beti.

Erlijioetan, Jainkoarekiko azalpenak emateko ezberditasunak nabariak dira, kultura eta tradizio edzberdinen arabera, eta azalpen horietan Jainkoa bera ez ezik garaian garaiko eta tokian tokiko sinestun eta gizon-emakumeen entzun-gaitasunari begiratuz mintzatu ohi da.

Bistan da gizakion premiei erantzunez hitz egin behar dela Jainkoaz, Berau ulergarri gerta dadin. Gizakiontzat Jainkoa arazo pedagogikoa ere bada, beraz. Hain zuzen, zailtasun horiei gaina hartzen saiatu izan dira erlijio guztietako mistikariak, teoretatik baino esperientzia mistikoetatik mintzaten ari direla.

Orain, sinesgaien azalpen modu zaharrek indar bera ez dutenean, galdera berriekin datoz fededun eta fedegabeak; baina, nolahi ere, bizirik daude galdera nagusiak: Jainkorik bai? Nolako Jainkoa? Gizakiaren zerbitzuan ere badatorrena?

Zientzia fisikoetatik datorkigun munduaren ikusmolde "kuantikoa" ezagutu ondoren, nago ez ote dugun munduaren eta gizakiaren jainkozko "bestalde" kualitatiboa ere begiratu behar, bizientzua eta azken argiaren itxaropena gure baitan gordetzen ditugula.

Joseba Intxausti